

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

BERRIKUNTZA EUSKADIKO ETEETAN: ANALISIA ETA HAUSNAKETA BERRIKUNTZA INKESTA OINARRI HARTUTA

LABURPEN EXEKUTIBOA

07/2024 zk.

 <https://doi.org/10.18543/UDQV7448>

Maddalen Alkorta

Aitziber Elola

James R. Wilson

CUADERNOS ORKESTRA, 07/2024 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoa gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/ECII3722>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/UDQV7448>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/TJJI8628>

© Maddalen Alkorta, Aitziber Elola, James R. Wilson

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua –Deusto Fundazioa

www.orquestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren mendeko SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren finantzaketarekin egin da.



Txosten hau Eustatek emandako datuei esker egin ahal izan da, Orkestrak egindako eskaerei erantzun eta mikrodatuetarako sarbidea eman izanari esker. Gure eskerrik beroenak Eustati, emandako erraztasun guztiengatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, Mari Jose Aranguren, Susana Franco, Bart Kamp eta Mikel Navarriori lan honen garapenean egindako iruzkin eta ekarpenengatik.

Laburpen exekutiboa

Enpresa txiki eta ertainek (ETEEK) berrikuntzak egiteko duten gaitasuna erabakigarria da edozein lurralderen lehiakortasunerako. Are gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan, non pisu handia duten ETEek ekonomian. Bere berrikuntza sistemaren jardun global onagatik nabarmentzen da Euskadi; eskualde berritzaile indartsuen artean kokatzen da *Regional Innovation Scoreboard (RIS)* zerrendan. Hala ere, etengabeko kezka dago ETE berritzaileen ehunekoa nahiko txikia delako erreferentziazko beste lurralde batzuekin alderatuta. Eustaten eta Eurostaten berrikuntza inkestak oinarritzat hartu eta ETEen berrikuntzari buruzko ezaugarri nagusiak aztertzeak aukera ematen du hauek berrikuntzan duten posizionamendua hobeto ulertzeko eta honek hainbat esparrutan dituen inplikazioen inguruan hausnartzeko.

Berrikuntza eta enpresen tamaina

Tamaina erabakigarria da enpresen jardura berritzailean. Ondorioz, nabarmentzekoa da handiagoa dela Euskadin ETEen ehunekoa (%98), batez ere enpresa txikiena (%82), beste lurralde batzuetan baino. Datu honek garrantzi berezia du, nahiko baxua baita (%38,9) lurraldeko enpresa txiki berritzaileen ehunekoa, enpresa txiki guztiak aintzat hartuta. Deigarria da, era berean, abantaila erlatiboa galdu izana ETE berritzaileen ehunekoan (60,7%), EB-27ko tamaina bereko enpresekin alderatuta (65,2%). Horrek guztiak euskal ETEetan berrikuntzaren kultura sustatzen jarraitzeko beharra berresten du.

Berrikuntza motak

Produktuko berrikuntzaren bat egin duten ETEen ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainian baino; baxuagoa, aldiz, EB-27 eta Alemanian baino. Nabarmentzekoa da handiagoa dela produktuko berrikuntzaren bat egin duten euskal establezimendu ertainen ehunekoa (% 38,8), EB-27ko batez bestekoa (% 37,8) baino, nahiz eta Alemaniakoaren azpitik dagoen (% 44,1). Gainera, berrikuntzaren emaitzen edo outputen adierazle hartzen den produktu berrien edo hobetuen salmentek salmenta osoan duten pisuari erreparatzen bazaio, Euskadiko ETEen ehunekoa (% 11,1) gailendu egiten zaio EB-27koari (% 8,2) eta Alemaniakoari (% 6,2). Datu positibootan eragina dute tamaina ertaineko establezimenduek ageri dituzten balio handiagoek, nahiz eta azken urteetan beherakada erreparatu den. Eraitza hauek dualtasuna iradokitzen dute EAEko ETEen; hau da, aldi berean ematen direla enpresa ertainen posizionamendu nahiko ona eta enpresa txikien okerragoa. Egoera horrek agerian uzten du ahaleginak enpresa txikienetan zentratu behar direla.

Prozesuko berrikuntzari dagokionez, Espainiakoa baino handiagoa da, oro har, ETE berritzaileen ehunekoa, baina baita EB-27koa eta Alemaniakoa baino txikiagoa. Ekoizpen metodoen kategorian baino ez dituzte lortzen EB-27koen eta Alemaniakoaren antzeko balioak. Espainian baino hobeto eta EB-27 eta Alemanian baino okerrago posizionatzen dira enpresa txikiak adierazle guztietan; eta aldeak handiagoak dira antolaketaren eta giza baliabideen, negozio-praktiken eta kanpo harremanen, eta marketinaren kategorietan. Enpresa ertainen kasuan, ona da posizionamendua ekoizpen metodoen berrikuntzan EB-27ko batez bestekoarekin alderatuta; osteraz, okerragoa da gainerako kategorietan, bereziki antolaketa eta marketinarekin zerikusia duten guztietan. Beraz, ekoizpen metodoez bestelako berrikuntzak sustatzen jarraitzeko beharra identifikatzen da, ETEen lehiakortasunerako palanka baitira.

Berrikuntzako gastua

Oso desberdina da Euskadiko berrikuntzako gastuaren banaketa beste lurraldeetakoaren aldean: bertako berrikuntza gastua asko kontzentratzen baita ETEetan, eta, aldiz, gainontzeko lurraldeetan pisu handiagoa dute enpresa handiek berrikuntzako gastuan. Gainera, bereziki nabarmentzekoa da zein altuak diren euskal establezimendu ertainetan berrikuntzako gastua negozio zifraren ehunekotan batetik, eta barneko eta kanpoko I+G gastuaren pisua bestetik. Bestelako berrikuntzako gastuak, aldiz, erlatiboki baxuak dira. Emaizta horien atzean hainbat ezaugarri daude, besteak beste: enpresa handien ehuneko txikiagoa Euskadin; EB-27 eta Alemaniako enpresa handien batez besteko tamaina handiagoa; eta I+Gko zerbitzuetan zenbatzen diren erakunde gehienak – eta Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntzako gastuan hainbesteko pisua dutenak – ez dira tamaina handikoak.

I+G+b arloko lankidetza

Euskadiko berrikuntzaren alderdi bereizgarrietako bat da I+G+bn beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko joera. Hain zuzen, %52 dira I+G+bn lankidetzan ari diren ETE berritzaileak, aintzat hartutako beste lurraldeen oso gainetik. Eskualde eta estatu mailan gertatzen da, batik bat, lankidetza hau, eta EB-27an baino txikiagoa da atzerriarekin lankidetzan aritzen diren establezimenduen ehunekoa. Bestetik, aholkularitzak eta teknologia zentroak, CIC-IKZ, BERC eta antzekoak dira ETEekin lankidetzan gehien aritzen diren eragile motak.

Berrikuntzarako laguntza publikoak

Laguntza publikoak jasotzen dituzten ETEen ehunekoa da nabarmentzen den beste alderdi bat; bai laguntza orokorreari (%53), bai I+G+brako laguntzei (%35) dagokienez. Ehunekoa askoz handiagoa da Alemaniakoa eta Espainiakoa baino, eta ETE gehienetara heltzen den laguntza jaulkitzailea Eusko Jaurlaritzak da, Foru Aldundien aurretik. Zentzu horretan, administrazioa ahalegin handia egiten ari da, eta ETE ugariengana iristen ari da bere laguntza programen bidez. Hala ere, analisi honetako emaitzak ikusita, egokia dirudi laguntzak eta beraien eraginkortasunari buruzko hausnarketa egitea.

Berrikuntzarako oztopoak

EAEko ETE guztientzat (berritzaile eta ez-berritzaileak) oztopo garrantzitsuenak *beste lehentasun batzuk* izatea eta *kostu handiegiak*, eta, ondoren, *ziurgabetasuna merkatuaren eskarian* izatea dira. Berritzaileei soilik erreparatuz gero, neurri handiagoan hautematen dituzte berrikuntzako oztopoak ez-berritzaileekin alderatuta, eta honakoak dira, hurrenez hurren, oztopo nagusiak haientzat: *kostu handiegiak*, *enpresak beste lehentasun batzuk izatea* eta *laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko zailtasunak*. Bestalde, bai berritzaileek, bai ez-berritzaileek garrantzirik txikiena *ezagutzarekin* lotutako oztopoei ematen diete. Horrek ohartarazten du lehentasunezkoa dela politika publikoak bidera daitezen identifikatutako oztopoak murriztera eta berrikuntzarako ingurune egokiago bat sortzera; baita lanean jarrai dadin berrikuntza gastutzat hartu beharrean inbertsiontzat har dezaten enpresek.

Enpresa estrategiak eta berrikuntza

Azkenik, honako estrategia hauek lehenesten dituzte establezimendu berritzaileek, berrikuntzaren eta erakundeek hartutako estrategiaren artean dagoen lotura kontuan hartuta: i) kalitate lidergoan oinarritutako estrategiak, ii) lehendik dituzten produktuak hobetzea, iii)

ezarritako bezero taldeak asebetetzea eta iv) bezero talde berrietara iristea. Oro har, etengabeko hobekuntzan zentratutako berrikuntza ereduak ikusten dira, arrisku txikia eta disrupzio maila txikiak bereizgarri dituztenak. Hausnarketarako galdera bat da ea komeni den oreka handiagoa lortzea hausturaren eta etengabeko hobekuntzaren artean, edo, aitzitik, egungo ereduak baliozkoa den.

Inplikazio globalak

Euskal ETEetan berrikuntzak dituen ezaugarrien analisi honek berretsi egiten du badagoela beharra arreta jartzen jarraitzeko jarduera berritzailea duten ETEen kopurua eta ehunekoa handitzean. Alde batetik, garrantzitsua da ETEetan berrikuntzaren kultura sustatzen jarraitzea, etorkizuneko lehiakortasunerako jarduera berritzailearen garrantzia ulertaraziz, estrategiaren zati integral gisa. Bestetik, garrantzitsua da ETEen jarduera berritzailea babesten jarraitzea, aurre egin ahal diezaieten prozesu honetako oztopoei (batez ere kostuekin eta enpresan beste lehentasun batzuk izatearekin lotutakoei). Zentzu horretan, Administrazioa ahalegin handia ari da egiten eta ETE askotara ari da iristen bere laguntza programen bidez. Hala ere, egokia dirudi hausnarketa egitea laguntza programa horien inguruan, eta batez ere laguntzok enpresa txikietan hautemandako oztopoei aurre egiteko duten gaitasunaren inguruan.



LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es